

3- Funtzesko elkarteak

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko jada hitz egin dugu hainbat enpresekin eta batek bere interesa erakutsi du gure proiektua aurrera eramaten laguntzeko eta merkatura eramateko.


Gure proiektua bolante berri bat egitea denez hitz egin dugun enpresekin automobilistikoak dira eta haiek eman digute informazio asko beharrezko material eta baliabideen inguruan.

Beharrezko materialak lortzerako orduan, enpresa hauen bidez egin dugu lorpena eta beraiek eman digute informazioa.

Elektronika inguruko enpresekin jarri gara kontaktuan eta baita diseinukoekin ere, hauek lagunduko digute bolantearen diseinua aurrera eramatea. Gure bezeroei bolante eroso eta gidatzeko erreza izatea eskaini behar diegu.



Horrez gain, beste enpresa batek pultsua neurtzeko behar ditugun sentsoreak emango dizkigu, beraiek egiten dituzte eta teknologia aurreratuena erabiltzen dute beraz oso ondo etorri zaigu enpresa honekin harremanetan jartzea.



Gure enpresa 4 pertsonaz osatuta dago eta honen barruan bakoitzak “roll-a” bat dauka. Bakoitza gauza batetaz arduratzen da bestela ezingo zen enpresarekin jarraitu eta honela enpresa ondo antolatuta dago eta aurrera eraman dezakegu arazorik gabe.

Andreak taldeari sormena eskaintzen dio. Gainera, hori gutxi balitz, bere ikasteko eta laguntzeko motibazioa erakusten du. Beti prest dago ideia berri bat edo hobekuntza bat taldeari eskaintzeko. Gogokin egiten du lana enpresa gero eta indartsua izateko.

Nestorrek, web-gunean sortu eta garatzeko trebetasuna ezarri du taldean eta Iraiak, bere teknologia berriekiko ezagutzak zabaltzen ditu taldean. Informatikan daukaten trebetasuna ondo erabiltzen dakitela erakusten dute. Beraiei esker Kartinnova poliki-poliki zabaltzen joaten hari da eta gero eta ezagunagoa da. Baita Facebook eta gmail lantzen dituzte, jendea eguneratua egoteko e-mailak eta mezuak erantzunez.

Iratik, bere antolakuntzarako grina eta abilezia eskaintzen dio Kartinnovari. Bera da enpresekin kontaktuan jartzen dena eta probedoreak lortzen dituena. Gainera gastuetaz arduratzen da. Dena oso ondo koordinatzen du eta berari esker enpresa handituz joaten da egunero.



